

Kanaletan azaldu egin dugun bezala, denda online-a edukiko dugu. Bezeroek gurekin edozein arazo edo gatazka idatzi ahalko dizkigute gure web orrian www.inuiplaneta.com.

Hilean behin, herri bakoitzeko bezero bat etorriko da egingo dugun bilerara. Bezero bakoitzak bere hobekuntzak eraman beharko ditu, eta bileran, guztion artean, arazoak eta konponbideak azaldu eta adostu egingo ditugu, horren ostean, bileran adostutako konponbideak martxan jarriko ditugu.

Astean behin, **tailer tour** bat egingo dugu tailerrean, bezeroak ikusteko zelan eta non lan egiten dugun. Eta urte bukaeran, ikastetxeen topaketa bat egingo dugu, umeei ikusteko zelan jarduten dugun gure enpresan. Nagusiki hau egiten dugu, nerabeek ikusteko gure lan filosofia, eta gure enpresan lan egiteko ikasketak.

Horrez gain, zientzialari adituen topaketak egingo ditugu hilean bitan. Oso garrantzitsua da, zientzia arloan adituak direnak haien ikuspegia eta hobekuntza jakitea. Ideia berriak jakinda, enpresa barruan ditugun langileek, adostu egingo dute ideia hoiek aurrera joango diren ala ez.

Enpresa aurrera joateko, banku kontu bat egingo dugu, kontuan, bezeroek haien finantzak sartu ahal izango dituzte.